

ETXEBIZITZA BABESTUAK DERION

ZOZKETA 2009ko uztailean



ETXEBIZITZA-OSPEA
LANDABARRI

Txarriemiko
habitat berria

Txarriemiko
Mankomunitatean bizitza
bazara edo lana bertan
egiten baduzu,

eman ezazu izena!



Erakundeak ez du erantzulez ardurarik bere proiektuaren inguruko informazioa emateko. Erakundeak ez du erantzulez ardurarik bere proiektuaren inguruko informazioa emateko. Erakundeak ez du erantzulez ardurarik bere proiektuaren inguruko informazioa emateko.



Kalitateko etxebizitza babestu bat lortu dezakezue
www.derio.org

Kalitateko etxebizitza babestu bat lortu dezakezue

- Derioaren gaitasunak
- Bideragarriak direnak
- Komunikazio onak
- Nazioarteko erakundeekin elkarlanean

94 645 90 15

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaudu.

Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Udane Goikoetxea, José Antonio Trabudua, Xabier Díaz, Oihana Astobieta, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea, Gotzon Barandiaran eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza


Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portada: Aritz Albaizar

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



EUSKO JURLARITZA
DEIALERAKO BATZORDEA

2010-11-15-2011-12-31
Hilabetezko Publikazio Zikloko Aldizkaria



diruz lagundutako aldizkaria

23 Loituko jaiak



14 Miriam Ruiz



12 Sei urte musika taldea



12 Arteaga-Derio futbol taldea



26 Aldekonako jaiak

AURKIBIDEA

- 4Eritxia 5Laburrak eta albisteak 11Publierreportajea
12Gurean izan da... Sei urte musika taldea
14Gaztea eta... Miriam Ruiz
16Asier Bengoa, okina 22Loiuko jaiak
25GII-ren gailurrera 26Aldekonako jaiak
29Literaturia 30Arteaga-Derio taldea
32Musika 34Teknologia
35Antxinako argazkia 36Sukaldaritza
37Denborapasa 38Agenda




Elaboración de Alberto
Taller de Arte y Diseño
40011 ZAHARA (Girona)



100 años de la Am2





Txorierriko langileak ez dugu garai oparorik ezagutu Historian. Beti borrokatu behar izan dugu, gure lan eta bizi baldintza duinak aitortzen dituzten. Eta orain, sekula baino arrazoi gehiago ditugu bide beretik jarraitzeko, irabazitako eskubide horiek galdu nahi ez baditugu, behintzat.

suntsitu dira Txorierrin, bidegabeko kale-
ratzeak hirukoiztu egin dira, langabe
kopurua izugarri hazi da, eta, ondorioz,
eskualdeko ehunaka familia gorriak ikus-
ten dabilta egunerokoari aurre egin
nahian. Egoera horren aurrean, patronalak
lehengo lepotik burua: euren etekinak ber-
matzeko asmoz, beharrezko diren erreze-
tak aplikatu dituzte, izan lan enplegu erre-
gulazioak ala izan lan-ordu poltsak. Era
horretako errezeten alde egin dute gure
eskualdeko hainbat enpresek ere, premia
duten ala ez kontuan hartu barik. Era-
kunde publikoek, berriz, betiko praktike-
kin jarraitu dute: baliabide gehien dutenei
laguntzak (diru-laguntzak) emanez eta be-
har handienak ditugunok ahaztuz.

Azken hilabetetako krisialdia baino lehen lan merkatua ez zen mesedegarria gehiengoarentzat, langileria klasearentzat; eta orain, are eta gutxiago. Langileria aktiboaren heren bat denboraldi baterako kontratupean dabil lanean eta 1.000 euroko soldata baino gutxiago kobratzen du hila-

betea. Lan merkatuan dugun babes falta izugarria da: ezegonkortasuna, prekarietatea, azpikontratazioa, segurtasun neurri falta, genero diskriminazioa... Eta krisialdi honek egonkortu egingo ditu arazook, baldin eta langileok borrokatzen ez badugu.

Egun jokoan duguna ez da bakarrik gure gungo egoera, gure lanpostua eta gure soldata. Jokoan dagoena etorkizuna ere bada. Krisi garai honek begi-bistan utzi digu krisian dagoena sistema ekonomikoa bera dela; aberastasuna egon badagoen arren, era desegoki eta desproporzionalean banatzen dutelako, gizarte desberdintasunak areagotuz. Langileok horretaz jabetu ezean, antolatu ezean eta bat eginda borrokatu ezean, arazoa ez da konponduko.

Egoera iraultzeko giltza boteretsuek izan ohi dute: erakunde publikoek eta patronalak. Baina sekula ahaztu behar ez duguna hau da: langileok ere, bat eginda eta helburu berarengatik batuz gero, boteretsuak garela.

Gehientsuenok irakurten dogu egunero

Egunotan Bilboko Arriaga Antzokian Mogelen (1745-1804) *Peru Abarca* irakurri dabe 400 bat lagunek, ozen eta jende aurrean. Bilbo Zaharra euskaltegiak antolatutako ekimena izan da, euskaltegi-takoentzako jaia, eta, era berean, klasikoe-tara hurreratzeko 12 orduko irakurraldia. Ikasleak, irakasleak, esparru desbardineta-ko profesionalak, herritarrak (Txorierri-koak be bai) edo esatariak izan dira XVIII. mendeko bizimodua ahotsez deskribatzen, irakurtzen.

Hausnarketarako bidea ekarri leike horrek. Batetik, kazetaritzan egunerokoan irakurri, ozen irakurtzen dogulako, eta bestetik, ahots asko entzun dogulako lan horrexetan, irakurketa ozenean.

Egia esan, irakurketa ozenaren ezaugarrien azterketak apurren bat baztertuta egon dira orain artekoan; hutsunea egon badago eta ilununeak argiuneak baino ge-



hiago dira.

Hori gora behera, aitatu daigun, irakurketa ozenaren kasuan ezinbestekoa dala hizkuntzaren doinuera jatorra aintzat hartzea; bai irakurlearen ikuspuntutik, baita jasotzailearen ikuspuntutik be, ze irakurketa desegokiak testuaren ulermena bera

be oztopatu egin leike. Idatzia garrantzia handia dauka geure gizartean eta talde honen eragin sozialagaitik, irakurketa ozenak bat-bateko mintzaerari be eragin egingen deutso. Egoera normalizatuan dagozan hizkuntzetan, erregistro ez-formalek irakurketa ozena praktikatzen dan erregistro neutro jasoari eragiten deutso. Geurean, barriz, alderantziz gertatzen da. Irakurketa ozena euskaraz eta euskararen sistema fonologikoaren arabera landu eta ebaluatu ezean, idatzia gailentzen da eta beronen bidez beste hizkuntza baten arauak ezartzen jakoz euskal letra idatzi horrerri. Egin aprobea, irakurri isilean eta gero ozen, Mogen edo beste edozein. Irakurri irakurtzen dogu baina badakigu irakurtzen? Horixe egin barri dozunez, mila esker.

*Oharra: Gaminde, I.; Goikoetxea, U.

Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak

[illegible]

ZAMKORD MOTOR

84 432 1616
84 432 1848

Md. Thornapple
P.O. Box 100
Lansing, Michigan 48206

Txakolinaren Egunak lekukoa hartu dio Lezamako Uzta Egunari

Ekainaren 14an, Txakolinaren Eguna egin zuten lehenengo aldiz Lezaman, bertako Udalak eta Nekalurrek antolatuta. Azoka honek azken zazpi urteotan egindako Uzta Eguna ordezkatuko du hemendik aurrera. Uzta Eguna urrian izaten zen, baina txakolingileek Udalarari azaldu zioten bezala, urrian mahatsa biltzeko sasoia hasten da, eta ondorioz, ekoizpen gutxi dute. Ekainean askoz txakolin gehiago dute eta hori dela-eta, hitzordua dataz aldatzeko eskatu zuten. Uzta Egunak bezala, Lezamako Txakolinaren Egunaren lehenengo edizioak helburu hauek izan ditu: Txorierriko eta Lezamako txakolina dastatzea, lurreko produktuak erakustea eta horien salmenta sustatzea.

Guztira 700 litro txakolin saldu ziren azokan. Gainera, ohiko produktuak (base-rriko ogia, euskal pastela, eztia, frutak, barazkiak, txokolatea...) erosteko aukera ere izan zen. Egun euritsua izan arren, 2.000 lagun hurbildu ziren Lezamara eta giro ederra egon zen goiz osoan zehar. Kepa Uriarte Bizkaia Irratiko kazetariak Txorierriko txakolina dastatzeko gonbidapena luzatu zien azokara bertaratutakoei, eta Angel Mari Peñagarikano eta Etxahun Lekue bertsolariek saioa eskaini zuten.

Sariak herrian gelditu ziren

Azokan berrogei postu jarri ziren eta bertan Txorierriko bederatzi txakolingileek hartu zuten parte: Aiarza, Aitabitxi, Basalbeiti, Erdikoetxe, Magalarte eta Garkalde, Lezamakoak; Sasikoetxe eta Sasines, Larra-betzukoak; eta Arkotxes, Zamudiokoa. Tzibi, Iraia eta Orueta Athleticen emakumez-

koen taldeko jokalariek txakolin-posturik ikusgarrienenak aukeratzeko ardura hartu zuten, eta euren iritziz, hauek izan ziren ondoen apaindutakoak: Erdikoetxe, lehenengo saria; Aitabitxi, bigarren saria; eta Magalarte, hirugarren saria. Saritu guztiak Lezamako txakolingileak izan ziren.

Beste alde batetik, herriko elkarte batzuek euren jarduera eman zuten ezagutze-
ra azokan; Laiak emakumeen elkarte eta Zorritzketan euskara elkarteak, tartean. Era berean, Behar Bidasoa gobernuz kanpoko erakundeak eta datorren urteko Ibilaldia-
ren antolatzaileek ere postua jarri zuten bertan. Azkenik, talo tailerrak, puzgarriak eta aurpegia margotzeko gunea antolatu ziren umeentzat.



Argazkiak: Jon Rozadilla eta Leire Iturrioz



Zamudion jarriko dute ESSren bigarren egoitza

Espalazio bidezko Europako neutroi iturria (ESS) Lund hirian (Suedia) ipintzea erabaki dute azkenean. Hala ere, Espainiako Estatuak eta Suediak akordioa lortu dute eta proiektuak egoitza bi izango ditu haren ondorioz: nagusia, Lud herrian, eta bestea, Zamudion.


Espainiako Zientzia Ministeriotik jakinarazitakoaren arabera, Zamudioko egoitza eraikitzeke lanak laster dira hastekoak: egoitza nagusia 2011n hasiko dira eraikitzen, eta Zamudioko instalazioek martxan egon beharko dute ordurako.

Zamudioko egoitzan 80 ikertzailek egingo dute lan, eta hiru azpiegitura izango ditu: azeleragailuak diseinatzeko eta fabrikatzeko teknologia-zentro bat; probak egiteko laborategi bat, eta softwarea garatzeko zentro bat. Azken horretan urruneko sarbide-estazio bat egongo da, mundu osoko zientzialariek Zamudiotik egin dezaten lan.

Egoitzan 150 milioi euroko inbertsioa egingo dute, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak aurten adostutako 30 milioi euroez gainera.

Galdera asko daude proiektu honi buruz; kokapena, esate baterako. Edizioa itxi orduko, ez da iragarri egoitza non altxatu-

ko den, Teknologia Parkean bertan edo inguruko lur sailetan. Are gehiago, Sor-kunde Aiarza Zamudioko alkateak azaldu digunez, Udalak komunikabideen bitartez jakin du bigarren egoitza honi buruz duen



informazio guztia. "Guregana ez du inork jo proiektua azaltzeko. Eskaera idatzia egin dugu industria sailburuarekin batzeko eta xehetasunak ezagutzeko".

Proiektu guztiek alde onak eta txarrak dituzte, eta Aiarza zuhur azaldu da ESSk Zamudion izango duen egoitzari buruzko balorazioa emateko. "Hasiera batean, onurak ekarri ahal dituela ematen du. Enpresak Zamudion ezarri eta lanpostu berriak sortzeak onura ekonomikoa ekartzen dio herriari beti".

Zer da espalazioa?

Neutroiak atomoen nukleoak ikusten dituzten partikulak dira. Horregatik, materia eta haren egoera, ezaugarriak eta propietateak ikertzeko erabiltzen dira. Espalazioa neutroiak kopuru handian sortzeko aukera ematen duen teknika da: atomoaren nukleoa ezpaletan zatitzen da, neutroiak igortzeko. Adituen esanetan, espalazio bidez ekoiztutako neutroi bakoitzak sortzen duen beroa minimoa da fisio nuklearraren aldean: 55/180 erlazioa, hain zuzen ere. Era berean, ESSk onura ekar liezaieke zientziaren ia alor guztiei: medikuntzari, fisikari, biologiarri edo geologiarri, esate baterako.

Carnicería
Charcutería
INAZ
CARNICERÍA Y CHARCUTERÍA
1948
LIBERTY BIRD
charcutería

WETEGIA
IAZI
JATETKEA
Jarduerak, 7 - 48100 94 91 14 94
19001 - ELKANO

POXPOLIN
FARMACIA DE FARMACIA
FARMACIA DE FARMACIA
FARMACIA DE FARMACIA

ZAMUDIONKO ESTANKEA
Tobakoa. Libre eta oporak
Tobakoa. Libre eta oporak
Tobakoa. Libre eta oporak
Tobakoa. Libre eta oporak

OBRAS Y REFORMAS
Garroba
OBRAS Y REFORMAS
Garroba
OBRAS Y REFORMAS
Garroba

Carmendia
ardoak
Carmendia
ardoak
Carmendia
ardoak

cianoplan s.a.
global printers
Libarte Hiribidea 100 470
48101 Zamudio
Telefonoa: 94 91 71 77
Idazkaria: cianoplan

- Kopiatze eta planatzeak.
- Kartulak koloretan eta z/b.
- Digitalizazio eta bakorizazio, automatizazio eta laguntza.
- Fotokopiatze koloretan eta z/b.
- Era desberdineko konputerrak.
- Plastifikazioak.
- Era desberdineko.

Azkueren pentsaera eta obra aztertu ditu Kintanak liburu batean.

Jurgi Kintana zamudioztarrak *Intelektuala nazioa eraikitzen*: R. M. Azkueren pentsaera eta obra liburua aurkeztu berri du. Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenari esker argitaratu da liburua, Akademiak kaleratzen duen "Iker" bildumaren barruan.

Kintanak Joseba Agirreazkuenaga euskaltzain urgazlearen zuzendaritzapean egindako doktorego tesiaren zati nagusia biltzen du lanak, eta atal nagusi bi ditu: Azkueren pentsaera eta Azkueren obra.

Pentsaerari dagokionez, Azkueren aber-tzaletasuna azpimarratu zuen egileak. “Bere helburua euskara bultzatuko zuen nazio kul-tural bat eraikitzea zen. Euskara presente ez zegoen tokietara eraman nahi zuen, berak oso esaldi esanguratsua erabiltzen zuen hori adierazteko: ‘piano hotsa eta te usaina dago-

en tokietara eraman behar dugu euskara'.
Azkie abertzalea eta intelektualak izan zen".

Obrari buruz, genero guztiak jorratu zituela azaldu zuen, eta 60 urtetan zehar eus-kara hezkuntzan sartu behar zela aldarrikatu zuela, baita bultzatu ere. Kintanaren iri-tziz, Azkueren obra nagusia "Euskal Aka-demia sortzea izan zen, euskara normalizatu eta normatibizatzeke. Bat izan zuen ametsa eta helburua: herri-tradiziotik abiatuta, na-zio moderno bat sortu eta etorkizunerako moldatzea".

Egileak Euskaltzaindiaren egoitzan aurkeztu zuen liburua, eta ondoan izan zituen Andres Urrutia euskaltzainburua, Jon Iratzusta Euskal Herriko Unibertsitateko Eus-kara errektoreordea eta Joseba Agirreazkue-naga euskaltzain urgazle eta EHUKo katedraduna.



Astikene enpresa parkea inauguratu dute Derion

Lander Aiarza Derioko alkateak eta Agustín Fernández Neinor taldeko presidentek Astikene enpresa parkea inauguratu zuten maiatzean. Enpresa parkea Bilboko aireportuaren ondoan dago eta 110.000 metro koadro ditu; azaleraren %88 komertzializatu da dagoeneko. Neinor taldeak 50 milioi euro jarri du proiektuan.

Enpresa parkean 55 enpresa hartzeko tokia dago eta 300 lanpostu inguru sortuko dira. Gune nagusi bik osatzen dute parkea. Haietako batek 25.000 metro koadroko azalera du eta hirugarren sektoreko jarduerak eta bulegoak kokatuko dituzte bertan. Holiday Inn hotela ere jarriko da gune horretan. Gainerako 85.000 metro koadroetan hiru eraikin altxatu dira eta 220tik 3.750 metro koadro bitarteko pabiloiak kokatuko dira haietan. Ibai pasealekua batek bereizten ditu gune biak. Inguruan berdeguneak atondu eta hemengo zuhaitzak landatu dituzte. Astikene eremua eraikinik gutxien duen Bizkaiko enpresa parkea da: lurzoru osoaren %20 besterik ez. Ondorioz, espazio libre eta berdegune zabalak ditu, baita aparkalekuetarako azalera handia ere.

Enpresa jarduera martxan dago jadanik parkean, eta hotelaren eraikitze lanak nahiko aurreratuta daude. Hotelak 125 logela izango ditu. Astikene enpresa parkea leku ezin hobean kokatu dute, Loiuko aireportutik hurbil egoteaz gainera, zuzeneko sarbidea baitu Txorierriko igarobidera. Kokapena eta ezau-garriak kontuan izanik, Astikene enpresa parkea oso esparru egokia da zerbitzu sekto-reko enpresak han ezartzeko; logistika eta bil-tegiratze enpresak, esate baterako.

 **GULFSTREAM**
VERMONT EQUIPMENT, LLC

3000 Route 100 • Shelburne, VT 05482 • 802.962.0000

West Valley, VT • Middlebury, VT • Shelburne, VT • Spaulding County, VT
Representing over 40 of the world's premier OEM's

SALES • SERVICE • PARTS • RENTALS • LEASES • FINANCING

PT. KITA INUSLAN
 Jalan Selatpanjang, 1
 Kecamatan Lingsi
 Kabupaten Indragiri
 Kalimantan Barat
 (0812) 3333 3333 (0812) 3333 3333



TALLERES JUAN ANDRÉ
 AUTOMÓVILES, ELECTRICIDAD, MAQUINARIA,
 PARTES Y ACCESORIOS

LEONARDO M. J. 275 TEL.
 54.00.14.00.000



Merceria
Carmele

TELEFONO 0432/21.40.00 - 21.40.01 - 21.40.02 - 21.40.03

LEANDRO LANDITA



PARACITEGIA-URDAITEGIA
094 8346 1174 - 94 400 0040 - 94 500 0418 (FAX)

2.000 etxe inguru intsonorizatu beharko ditu AENAk



AENAk Bilboko aireportua handitzeko asmoa du, eta horren haritik, Ingurumen Ministerioak Ingurumen-inpaktuaren Adierazpena argitaratu du. Ministerioak onartu du handitze-proiektua; hala ere, neurriak ezarri ditu zarata-kutsadurari aurre egiteko. Horrela, egunez 60 dezibel baino gehiago eta gauez 50 dezibel baino gehiago jasaten duten etxebizitzak, eta eraikinak intsonorizatu beharko dira. Neurriak Erandio, Loiu, Sondika, Derio eta Zamudioko gunetan du eragina.

Ekainaren 17an, Ingurumenaren jarraipen-batzordea osatu zen. Batzorde horretan hauek daude: AENA, Ingurumen Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Udalak eta Lur Maitea talde ekolo-

gista.

Aurreikuspenen arabera, 2.000 etxebizitza inguru intsonorizatu beharko dira Txorierri. Hala ere, ez da datu zehatzik eman, eta Udal bakoitzak jakinarazi beharko dio AENARI zein den seinale akustikoak eragina duen etxe-kopuru zehatza. Etxe horietan zarata-maila neurtuko da intsonorizatze lanak hasi aurretik eta ondoren. Lanak AENAk ordainduko ditu osorik, eta kalte-tuek ez dute dirurik aurreratu behar izango.

Erakunde publikoa harremanetan jarriko da kaltetuekin, eta formulario bat aginduko die intsonorizatze-planari hel diezaioaten. Intsonorizatze lanak 2020. urterako amaitu behar dira.

Txorierritar guztiek izango dute Landabarriko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko aukera

Uztailean babes ofizialeko 24 etxebizitza zozketatuko dira Landabari Derioko egoitza-gunean. Zozketak nobedade inportantea ekarriko du, izan ere, derioztarrek ez ezik txorierritar guztiek eta bailaran kokatuta dagoen enpresetako langileek ere parte hartu ahaliko dute bertan. Lehentasuna Derion erroldatuta daudenek izango dute.

Lander Aiarza Derioko alkateak azaldu duen moduan, etxebizitza-eskaintza eskaera baino handiagoa da herrian, eta horregatik erabaki da zozketa Txorierriko biztanleei eta langileei zabaltzea. Gainera, gainontzeko Udalek ere politika berari jarrai liezaioke etorkizunean. "Mugikortasun jasangarriaren aldeko neurria ere bada. Egutero milaka lagun etortzen dira gurera lan egitera, eta etxea enpresaren ondoan badute, joan-etorriak murriztuko dira". Etxebizitza bakoitzak logela bi ditu eta 228.000 euro balio du.

Zozketan parte hartzeko interesa dutenek Derioko Etxebizitzaren Bulegoan (Sollube 1, behea) eman dezakete izena. Izena ematea uztailaren 18ra arte egongo da zabalik.

Antzerki trebatzaile ikastaroa

Urrian Antzerki Eskola zabalduko da Derion. Proiektua Tximintx euskara elkarteak bultzatu du eta eskola Kurkuluxetan Bilboko elkarte-antzerki irakasleek emango dute. Txorierriko harrobia lantzea ezinbestekotzat jotzen dute, eta horrexegatik antzerki trebatzailea izateko ikastaroa egingo dute uztailaren 1etik 3ra bitartean. Ikastaroak 10 euro balio du Tximintx elkarte-ko bazkideentzat; gainontzekoek 15 euro ordaindu beharko dute. Informazio gehiago: 635 75 35 95.



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfonua: 94 452 11 58
ZAMUDIO



LAKES
Telerikoa Jantzeria

LAZARTE 1
KULTURAREN
ETXEA 1018

Espezialitateak
Kanta (Guztira)
Musika

Antzerki, Antzerki, Kanta
Musika, Antzerki, Kanta



LOHIZUN
Guztira

Antzerki, Antzerki, Kanta
Musika, Antzerki, Kanta



ZAMUDIO

Antzerki, Antzerki, Kanta
Musika, Antzerki, Kanta

**MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA**

Sukalde eta bainugeletako harriak
fotokopio, artariak eta hilerriak

Txorierritarrek bakarrik
ZAMUDIO (BILBOA)
Tali Pasa 64 488 01 41 - 2

Kulunka, eskolara joateko

Ekainean herri-paella jana izan zen Sondikan, "Ostegun miraritsuak" tailerretan egindako lana jendaurrean aurkezteko. "Ostegun miraritsuak" Xelo Bosch eta Cyrille Larpenteur artistek eta CONSONNI arte ekoizpen-etxeak bultzatutako ekimena da, eta maiatzaren 25etik 31ra bitartean burutu da. Proiektuak sondikoztarrek herriarekiko dituzten nahiak batu eta aditzera ematea du helburu, baita horiek egia bihurtzea ere.

Tailerretan 100 herritar inguruk hartu dute parte: umeak, gazteak, helduak eta nagusiak. Eta guztiek egin diote ekarpea proiektuari. Era berean, herriko hainbat tokitan poteak jarri dituzte, eta horietan ere herriaren gaineko hausnarketak eta iradokizunak batu dituzte.

Artearen errekursoak herritarren

parte-hartzearen oinarrizko metodoekin uztartu egin dira "Ostegun miraritsuak" ekimenean. Herri-paella jana aitzakiatzat hartuta, sondikoztarrek euren auzokideen iritziak, nahiak eta ametsak ezagutzeko aukera eduki dute. Eskaerak anitzak izan dira eta horien artean hauek aipa daitezke: igerilekuaren ordutegia hobetzea, bertako komertzioa bultzatzea, babes ofizialeko etxebizitza gehiago erakitzea, txakur-gorotzen arazoari konponbidea ematea, udal txoko bat sortzea, kosk egiten ez duen tigre bat egotea, zaldi-granja bat izatea eta kulunka bat jartzea, Sondikako etxe guztietatik eskolara joateko. Herritarrek euren lana egin dute, eta nahiak errealitate bihurtu beharko dituzte artistek. "Mirariak" urriaren 3an eta 4an gertatuko dira.



Ikastetxeen arteko bertso topaketa



Bizkaiko Bertsozale Elkarteak urteak daramatza bertso eskolak ematen Txorierriko herri ikastetxeetan. Ekimena Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleei dago zuzenduta, eta gaztetxoak bertsolaritza mundura hurbiltzea du helburu. Bertso eskolek ikasleen artean duten arrakasta kontuan hartuta, helburua bete dutela argi dago.

Aurten 150 neska-mutil inguruk hartu dute parte bertso eskolan. Bertsolaritzaren gaineko hainbat kontu ikasi ez ezik bertsolari ospetsuen bizitza eta beharra eza-gutzeko aukera ere izan dute klasean. Horrezaz gainera, euren produkzio txikia egin dute: kopia txikiak, zortziko txikiak... Eta azken lan hori, hain zuzen ere, jendaurrean aurkeztu dute Txorierriko ikas-

tetxeen arteko bertso topaketan. Ekainaren 9an Sondikako Kultura Etxean egin zuten ekitaldiak amaiera eman dio ikasturteari. Aretoan herri ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak batu ziren, eta eskola bakoitzak bere bertso sorta kantatu zuen. Etxahun Lekue eta Iñaki Iturrioz "Iturri" bertsolariak bat-batean aritu ziren taula gainean, eta Aitor Rubio kantariak musika saioa eskaini zuen publikoaren laguntzarekin. Gorka Carro Txorierriko Mankomunitateko presidente eta Sondikako alkateak diploma eta liburu bana eman zien oparitzat ikastetxeei. Carrorekin batera Alaitz Etxeandia Lezamako alkatea, Vicente Arteagoitia Loiuko alkatea eta Miren Argi Llona Sondikako kultura zinegotzia izan ziren ekitaldian.

Berasategik beste garaipen bat lortu du Alemanian

Virginia Berasategik munduko triatloilari-rik onenetarikoa dela erakutsi du beste behin ere. Sondikoztarrak nazioarteko bost probatan hartu du parte aurten, eta bostak irabazi ditu. Azkena Kaiser's Bonn Triathlon proba izan da, Alemanian.

Lehiaketan 1.000 lagun baino gehiago aritu ziren. Horieta 124 emakumezkoak izan ziren eta 14, profesionalak. Parte-hartzaileek ibilbide luzean egin behar izan zuten: 3,8 km igerian, Rhein ibaian; 60 km bizikletaz, eremu malkartsu batetik; eta 15 km korrika, ibai inguratzen duen pasealekutik. Virginiak 3 ordu 15 minutu eta 37 segunduko marka lortu zuen:

Argazkia: Jon Alegria Uzquidun



Goiherri, txapeldun

Goiherri Sokatira Taldeak Euskadiko txapelketa irabazi du, 640 kiloko kategorian. Erandiogoikoko taldea saio guztietan nagusitu da. Iaz ere txapela lortu zuten "Txelis"en mutilek.



**LIBRERIA
SONDIKAK
LIBURUTEGIA**

ARTE EDERAK ISKULANAK, E.A.

JA-SOLAS MANGUET I. BARRIO ANIZTAN

Liburugatik, liburuen salerak, giletak, liburuak,
prentsa, albilekurrak, liburuak,
paperezkoak eta elektronikoak

Milail Zuzen, 3 Tel. 7 40000000 16000
48100 SONDIKAK (Bizkaia)

Barrio Txorierri

Barrio Txorierriko Kultur Etxea
Barrio Txorierriko Kultur Etxea
Barrio Txorierriko Kultur Etxea

Barrio Txorierriko Kultur Etxea



Barrio Txorierri

Barrio Txorierriko Kultur Etxea
Barrio Txorierriko Kultur Etxea

ASESORIA

Liz. Fernando Aguirre, S.L.

Barrio Txorierriko Kultur Etxea
Tel. 7 40000000 16000
48100 SONDIKAK (Bizkaia)

IMK-Derion

Lanbide-etorkizuna paisaian murgilduta

Derioko Nekazaritza-eskola duela 23 urte zabaldu zuten, hiru ikasketa-titulu zituela: LH1 Nekazaritza eta abelazkuntzako ustiategiak; LH2 Hortofrutikultura; eta LH2 Basogintzako ustiategiak. Bilatze eta sendotze urteak izan ziren, zeinetan Etengabeko Prestakuntza Trinkoaren oinarriak ezarri baitziren. Hasierako hiru lerro estrategikoak sektorerara eta garaietara egokitu, eta hamar lerro estrategikoak bihurtu dira gaur egun.

Lanbide Heziketaren erreformarekin batera, hiru ikasketa-titulu berri jarri zituzten Derion duela 12 urte. Ikasketa-tituluak gaur egun eskaintzen duten Hasierako Prestakuntzaren barruan daude. Erdi mailako heziketa ziklo bi: Lorezaintzako erdi mailako teknikaria eta Nekazaritzako ustiapen intentsiboetako erdi mailako teknikaria (base-riarekin lotutako fruitu, ortuari, lore eta landareen ekoizpena); eta goi mailako heziketa ziklo bat: Natura-eta paisaia-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko goi mailako teknikaria (unibertsitatera zuzeneko sarbidea duena). Hainbat urtetako eskarmentuak emandako lasaitasuna lagun, sektore berdeari, emergentea eta dinamikoa zena eta gure erkidegoan etorkizun oparoa zuena, zuzendutako prestakuntza moderna eta kalitatezkoa emateak ekartzen zuen erronkari egin zioten aurre.

Erronka berriak etorri dira pixkanaka-pixkanaka. 2006-2007 ikasturtetik, IMK-Derion goi mailako heziketa zikloaren euskalduntze prozesuan daude murgilduta. Zero

“IMKn seguru daude lanbide heziketa, modernoa eta kalitatezkoa, inbertsiorik onena dela, ikasleek natura-ingurune eta paisaiarekin lotutako sektoreetan euren burua gara dezaten”

tik hasita, ahalegin handia egin eta irakasleak euskaldundu eta material didaktikoa, terminologia teknikoa... euskaratu egin dituzte. Ondorioz, goi mailako heziketa ziklo hori D ereduaren barruan ematen dute.

Paisaiaren aldeko Europar Konbentzioan (2000. urtean) hala adierazi zuten: “Paisaia elementu garrantzitsua da ingurune hiritar zein herritarretako biztanleriarentzat. Paisaiak parte-hartze garrantzitsua du

interes orokorrean, aspektu ekologiko, sozial eta inguruneokan, eta baliabide onuragarria da ekonomia-jarduerarako. Era egokian babestu, kudeatu eta antolatu badugu, enplegua sortzen lagun dezakegu...”

Era egokian kudeatu, antolatu eta babestutako paisaia hori, bizi-kalitatearen elementua dena eta enplegua sortzen laguntzen duena, IMK Deriotik sektoreko gaur egungo eta etorkizuneko profesionalak era egokian kudeatu, antolatu eta babestea nahi duten paisaia da.

Bizi-kalitatea hobetuz

IMK Derion seguru daude lanbide heziketa (hasierakoa edota etengabekoa) modernoa eta kalitatezkoa inbertsiorik onena dela, ikasleek natura-ingurune eta paisaiarekin lotutako sektoreetan euren burua pertsonalki eta profesionalki gara dezaten.

Hogeita hiru urteren ostean, lehengo ikasleetako asko natura-ingurune eta paisaiaren baliabide naturalen kudeaketan eta antolaketan daude murgilduta eta lana euren enpresan edo inoren enpresan egiten dute: basogintzako enpresak; lorezaintza-zaharberritze-paisaiako enpresak; landare-mintegiak; fruta eta ortuari-mintegiak...

Eta paisaia etengabe aldatzen den moduan, profesional horiek jarraitzen dute Etengabeko Prestakuntza Trinkoak eskaintzen dituen kurtsoak egiten, euren lanabesak eta ustiapenak berritu eta modernizatzeke. Etengabe aurrera doan lanbide-paisaia egokituz, ziurgabetasunak eta aukerak eskaintzen dituen. Aukeren bila beti, euren bizi-kalitatea hobetzeko; baita gurea ere.

IMKn apustu sendoa egiten dute gure paisaia ogibide bihurtu duten profesionalen alde; eta paisaian murgilduta, hura zaindu, errespetatu, mantendu eta hurrengo belaunaldiei hobera eginda uzten dieten profesionalen alde.



Sei Urte, musika taldea

“Geure nortasuna sendotu dugu”

‘British-pop’ eta ‘power pop’ estiloetatik oso hurbil dagoen musika egiten dute, baina rockaren ikuspegitik betiere. Sei Urte musika taldeak ‘4’ estudioko laugarren diskoa aurkeztu zuen Zamudioko Pazko jaietan, eta **AIKOR!** Iokin taldeko gitarra-jotzaile eta abeslariarekin egon zen.

Testua: Itxaso Marina

Zelan joan da kontzertua?

Ondo. Disko berriko kantak jo ditugu zuzenean aurreneko aldiz, eta horregatik baliteke Zamudioko kontzertua ez izatea emango dugun onena. Hala ere, lehenengo kontzertua izateko, pozik lotu gara.

Baina ez da lehenengo aldia Txorierrin egon zaretela. Zelan hartzen zaituztete hemengo entzuleek?

Askotan jo dugu Txorierrin (Lezama, Derio, Zamudio...) eta oso gustura izan gara beti. Antolatzaileek ondo zaintzen gaituzte. Beraz, zuek nahi beste alditan

itzuliko gara!

4 aurkeztu berri duzue. Zuen diskorik helduena, beharbada?

Bai. Aurreko diskoetan “geure soinua” ren bila ibili gara, eta hirugarrenarekin (*Jauzia*) lortu genuela uste dugu. Oraingo honetan gustura gauden bidean sakondu dugu, geure nortasuna sendotuz. Eta horrek ematen duen lasaitasunaz landu dugu azken diskoa.

Hemen gaude, Karmasutra... mezu desberdina dago abesti bakoitzaren atzetik.

Ez dago mezu bakarra; abesti bakoitza

Diskografia

Bapatean (Metak, 2003)

Ekiozu (Metak, 2004)

Jauzia (Estoldetan, 2006)

Plateruenen zuzenean (Estoldetan, 2007)

4 (Baga-Biga, 2009)

Iokin: gitarra-jotzailea eta ahotsa

Julen: baxua

Ekain: bateria-jotzailea

Iñaki: gitarra-jotzailea

mundu bat da. Hitzei seriotasun apur bat kentzen saiatu gara azken lan honetan. Talde bezala, geure sorkuntzaren egoera adierazi nahi izaten dugu diskoetan. Hau da, momentu bakoitzean zein musikarekin egiten dugun bat, zelako gauzei kantatu nahi diegun.


Disko berria webgunearen bidez eskatuz gero, hirugarren diskoa oparitzen duzue. Adimena zorroztu behar da krisialdian?

Bai. Oso zaila da diskoak saltzea, eta pena da, disko bat lan handiaren fruitua delako, baina hori ez da baloratzen. Guk, oraingoz, *Jauzia* oparitutako diogu azken diskoa erosten duenari. Ez da gutxi 10 eurogatik!

Krisiaren eraginik sumatzen duzue musikari moduan?

Zorionez edo zoritxarrez, ez gara musikatik bizi eta, alde horretatik, ez dugu krisirik sumatzen. Besteek bezala, geure lanbideetan igarri diogu krisiari. Dena dela, musikaren industria aspalditik dago krisian, baina hura ez da krisi globalaren ondorio; aurretikoa da eta ez dakit konponbiderik duen.

“Hitzei seriotasun apur bat kentzen saiatu gara azken lan honetan”



“Jendeak galdu
egin du euskal
eszenan zuen
interesa”

Zelakoa da, zuen iritziz, Euskal Herriko musikaren egoera?

Txarra. Musika aldetik unerik onenean egon ez arren, entzule falta da arazorik handiena. Jendeak galdu egin du euskal eszenan zuen interesa, eta lau-bost talderi baino ez die jarraitzen. Beste taldeekin egiten dugu berba, eta gauza bera esaten dute guztiek... Egoera etsigarria da taldeentzat. Estoldetan diskoetxea sortu behar izan zenuten Metak itxi zutenean. Estoldetan diskoetxearekin lan bi kaleratu dituzue. Azken hau, berriz, Baga-Bigarekin ateratu duzue...

Metak itxi ostean, geure diskoetxea sortu beste biderik ez genuen izan aurrera jarraitzeko. Zorionez, Baga-Biga diskoetxeak gugan jarri du konfiantza orain, eta asko lagundu digu horrek. Orain musika egiteari lotu ahal gatzaizkio, besterik gabe: autoekoizpenak dakarren lan “zikin” guztia diskoetxeak egiten digu. Gainera, diskoek oihartzun handiagoa lortzen dute. Balia-

bideak handiagoak dira Baga-Biga diskoetxearekin.

2002an Euskadi Gaztearen Maketa Lehiaketa irabazteak famatu egin zintuzten. Zelako oroitzapenak dituzue garai hartatik?

Garai polita izan zen. Urte asko ziren musika munduan lekuren bat egin nahi genuela, eta lehiaketan irabazle izateak horretarako aukera eman zigun. Oso gustura gaude handik hona egindako ibilbidearekin. Uste dugu ibilbide polita ari garela egiten.

Udaren atarian gaude eta jaiak han eta

hemen izango dira. Diskoaren aurkezpenekin ibiliko zarete, ezta?

Orain dagokigun lana da hori. Eta gogokoen duguna ere badenez... ba, primeran!


Sei Urte Euskal Herrian ez ezik Estatuan ere bada ezaguna. Zelako harrera izan duzue etxetik kanpo? Kanpoan jotzeko asmorik?

Jotzera Euskal Herritik kanpo irtetea asko gustatu zaigu betidanik. Harrera uste den baino askoz hobea izan da egon garen leku guztietan eta, egia esateko, kanpora gehiagotan irtetea gustatuko litzaiguke. Ea aukerarik dugun!



EUSKO KULTUR ETXEA
Castro kalea, 4 (Albarrakoa atarian)
Telefonoa: 94.453.64.63

Ortzailak 10, 12-14 ordu
A. BILBAOARRI ETXEA
Bila Etxea (Kortatu atarian)
BEZUEKO SAL



1. eta 2. solairuak
94.453.64.63

ANTZERKIA



Ortzailak 7, 12-14 ordu
KIKI KUMIKADUNA
Aurkezpen 14 orduan hasierak
(7 orduko 14 orduko
5. eta 6. orduak)

12 ordu: 5 €
14 ordu: 5 €

Ortzailak 10, 12-14 ordu
BEHARRIKORTAK
Aurkezpen 14 orduan hasierak
Tolabion (Aurkezpen)

12 ordu: 5 €
14 ordu: 5 €



Miriam Ruiz Friz, moda diseinatzailea

Diseinuak “made in Txorierri”

Arropa edo osagarriren bat erosten dugun hurrengo aldian, begiratu egin beharko diogu etiketari, bertan “Miriam Ruiz Friz” sinadura ager bailiteke. Sondikako neskak lehen urratsak eman ditu BEC, Bilbo, Sevilla eta Madrilgo ibiltokietan, eta bere lanak dendetara laster eramateko asmoa du.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Zergatik moda mundua?

Egia esan, zalantza asko izan nituen karre-ra-edo aukeratu behar izan nuen garaian, eta informatika ikasten hasi nintzen. Baina artea izugarri gustatzen zait oso txikia nintzenetik. Sormen handiko neska naiz eta moda adierazpidez dut. Duela hiru urte Moda diseinua eta Estilismoa hasi nintzen ikasten, Bilbon.

Zeren adierazpidea?

Nire sentimenduen eta gogo-aldatearen adierazpidea. Pozik banago, biribil formako diseinuak egiten ditut, zuzenagoak ere bai, koloredunak... Eta momentu hotz batean banago, ilunak, kolore barik...

Eta zertan oinarritzen zara arropa diseinatzeko orduan?

Arropa norentzat izango den hartzen dut kontuan. Dena dela, desfileetarako diseinuak egiten nabil momentu honetan, eta horiek oso deigarriak izan behar dute; gogorak, plastikoz egindakoak... Kalera ateratzeko “jantzi ezin” den arropa da. Beno, “ezin”, “ezin”... Gerta daiteke gona bat, adibidez, aproposa ez izatea kaletik ibiltzeko; baina goiko partea, berriz, bai. Arkitekturan, koadroetan, eskulturetan... ere oinarritzen naiz. Moda beste arte mota bat da. Formetatik, materialetatik... hartzen dut inspirazioa.

Osagarriak ere diseinatzeko dituzu, zela-koak?

Gehienbat poltsak egiten ditut, burukoren bat... Eta arroparekin gertatzen den moduan, osagarri batzuk beste batzuk baino erabilgarriagoak dira. Alanbrea, egurra... erabiltzen dut burukoak egiteko. Kalera ateratzeko, ez dakit... baina ibiltokian ikusgarri gelditzen dira!

Zaila da publikoa pozik izatea?

Diseinuen ikusgarritasunak zerikusi handia du zure gogo-aldatearekin. Eta publikoari edo adituei dagokienez, ba, denetarik dago. Gustu kontua da hori. Diseinu bat ezin da soilik polita edo itsusia izateagatik baloratu; beste elementu batzuk ere hartu behar dira kontuan: landua bada, materialak...

Hainbat ibiltokitan izan zara zu, zelan esperientzia?

Oso aberasgarria, hitzez adierazi ezin dena. *Backstage*-an bizi dena izugarria da: mugimendu handia dago, beste leku batzuetako diseinatzaile eta modeloei kanpo biltza...

Eta zelako kritikak izan dituzu?

Ezin naiz kexatu. Finalera ailegatu naiz parte hartu dudana desfile guztietan, eta kritika onak jaso ditut. Publikoaren artean senideak eta lagunak egon direlako, behar-



Elle-afaindegia
MP Antonia Liria
Diseinatuak eta
1.000.000.000

AM
Diseinatuak eta
1.000.000.000

AM
Diseinatuak eta
1.000.000.000

bada? (kar, kar).

Zure arropa diseinatzen duzula kontatu digute...

Beno, gauzaren bat egin dut; poltsak, esate baterako. Eta nire soinekoa diseinatu dut ezkontza baterako. Lagun bati ere egin nion soinekoa. Amarentzako diseinuak egiten nituen hasieran, baina ez dut uste gaur egun diseinatzen dudana jantziko duenik. Kamisetak ere margotu ditut nebarentzat.

Arazorik izaten duzu materialak topatze-ko?

Berton, material gutxi dago: betiko oihal koadrodunak, loredunak... Duela gutxi Londresen izan naiz, eta han aniztasun handiagoa dute: plastikoz edo paperaz egindako oihalak..., diseinuei beste ukitu bat ematen dietenak.



Etorkizunean, norentzat gustatuko litzaizuke diseinatzea?

Gazteentzat, baina estilo ezberdin bat sortzea gustatuko litzaidake, bereziagoa. Izan ere, gazte gehienok berdin janzten dugu gaur egun. Nire firma izatea gustatuko litzaidake; eta ezin bada, diseinatzailearen batentzat lan egitea. Langilea bazara eta ahalegina egiten baduzu, lana topatzea ez da zaila. Madrilen eta Bartzelonan aukera gehiago daude, beharbada, baina pixkanaka-pixkanaka Bilbon ere zabaltzen ari dira.

Zelan definituko zenuke zure estiloa?

Zaila da azaltzen, elementu asko uztar-

Argazkiak:
Miriam Ruiz



tzen baitut. Zurruna da, arkitektonikoa, XVI. mendeari keinua egiten diona, futurista ere badena.

Zeintzuk dira zure diseinatzailearik kutunenak?

Balenciaga eta Alexander McQueen, euren estilotik oso hurbil nagoelako. Beste alde batetik, oso gauza interesgarriak egiten ari dira Euskal Herrian. Diseinatzaile asko ditugu bertan, eta onak. Niri, oso ezberdinak badira ere, Miren Ocariz eta Jon Ciden lanak gustatzen zaizkit.

Modeloen neurria aspalditik pil-pilean dagoen eztabaidagaia da. Arazorik izan duzu inoiz modeloekin?

Bai, gehienak argalegi daude, eta zaila da ondo dagoen modeloa topatzea. Arropa 38 neurrikoa izan behar da, baina jantziko duten modeloek 36 neurria dutela gertatzen da askotan, edo 34; baita 32 ere. Nik biribilguneak dituzten neskak nahiago ditut; arropa askoz hobeto gelditzen da.

Dena dago asmatuta modan?

Bai, baina orain oso aukera ona dugu: teknologia. Hussein Chalayad diseinatzaileak esperimentazio handia egin du arlo horretan. Argiak dituzten soinekoak egiten ditu, berez luzatzen edo laburtzen diren jantziak... Ikusgarria da, benetan!

Planik?

Ikasketak datorren urtean amaituko ditut, eta Bartzelonara joateko asmoa dut, master bat egitera. Londresera ere joan nahi dut, kurtsoren bat egitera.

“Diseinu bat ezin da soilik polita edo itsusia izateagatik baloratu”

“Gazteentzat gustatu litzaidake diseinatzea, eta estilo berezi bat sortu”

Hästens

danish
Cushion mattresses
cheek

ARTEAGA koltxoï-denda

Deriska Sotikaris • 94 454 51 47 • DEPIO



Asier Bengoa, okina

“Kalidadea gurago dogu eskaini”



Atsedeen barik dabilz behar egiten Sarrikola okindegi-ko labeak. Ogia egin behar dalako, tartak, erroskilak, magdalenak... Asier Bengoa da okindegi buru. Negozioa ondotxo ezagutzen dau, lanbide honetan 11 urte daroaz-eta.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Zein da Sarrikolaren istorioa?

Beste okindegi bat genduan hasikerean. Gurasoek eta anaiak laguntzen eusten beharrean eta pitika-pitika jente gehiago hartzen joan ginan. Okindegi hori txiki lotu jakun eta Sarrikola zabaltu genduan orain dala sei urte Sarrikola Larrabetzuko auzoan, gure baserriaren ondoan. Gaur egun 10 langile gagoz bertan.

Zelango produktuak egiten dozuez?

Baserriko ogia, ogi integrala, arto-ogia, anoakoa... ogi beteak, erroskilak, kokoak... Azken biok gure produktu izarrak dira. Euskal pastelak be egiten doguz, erroskoak eta hainbat tarta mota: txokolatzkoa, laranjazkoa, ananazkoa, Santiago...

Ene! Zerk bereizten dau baserriko ogia ohiko dendetan erosi daikegunetik?

Baserriko ogia egiteko, ogi-uruna erabilten dogu, baina indar eta elastikotasun handiagoak dituana. Era berean, ez dogu ez kontserbagarririk ez gehigarrik erabilten. Ogia legamia-amagaz egiten dogu; hau da,

orea egiteko beharrezkoak diran osagaiak —uruna, ura eta gatza— nahastu eta egun batetik bestera ixten da jaikitzen. Guk kilo bateko ogi biribilak egiten doguz. Oreaki eskuz emoten jako formea eta 50 minutu inguruan sartzen da egurrezko labean.

Jenteak estimatzen dau mota horretako ogia?

Produktu naturalak gero eta gehiago kontsumitzen dira, jenteak pitika-pitika kontzientzia hartu eta kalidadea gurago daua-lako. Prezio aldetik ezin dogu merkataritza-gune handiakaz lehiatu; halanda be, proportzinoa atera ezkerro, prezio antzekoa da, eurek 300 gramoko ogi biribilak saltzen dabezalako eta guk, oster, kilo batekoak. Guk kalidadea eskaintzen dogu.

Gozogintzan be filosofia bera jarraituko dozuela suposatzen dogu, ezta?

Bai. Industria-okintzan erabilten dan txarri-gantza, esate baterako, guk ez dogu erabilten. Guk euskuz egiten dogu dana eta ez dogu ez gehigarrik ez koloratzaile-

Euskal Jaia antolatuko dabe, La

Zamudioko euskera alkarteak 10 urte bete ditu, eta herritar guztiak kalera aterako dira ekitaldiagaz bat egitera

Ekainaren 27a egutegian apuntatu beharreko data dogu. Lagatzu Zamudioko euskera alkarteak Euskal Jaia antolatu dau egun horretarako, herriko beste eragileakaz batera. Ekitaldia Lagatzu Eguna eta alkartearen urteurrenaren inguruan egingo dabe. Gabriel Etxebarriak, Iñaki Astorkizak eta Alesander Atxutegik kontatu deuskuez xehetasunak.

Testua: Itxaso Marina/ Argazkiak: Lagatzu elkarte

Gabonetatik hona daroe Lagatzukoek eta herriko gainontzeko taldeek Euskal Jaia prestatzen. Holango jaialdia egiteko proposamena Bertoko Soinu Tresnen Alkarteak adierazo eutsen euskera alkartekoei joan dan urtean, eta azken horreek momenturik egokiena orain dala erabagi dabe. Hamargarren urteurrenaren haritik ekitaldi berezia antolatu gura dabe-eta.

Lagatzu Eguna oso jai arrakastatsua izan da hasikera-hasikeratik. Alkartea sortu zan garaian, Zamudion ez egoan herribazkariak egiteko ohiturarik, baina jai horretan jentetza handia batzen zan plazan inprobisatutako mahaien inguruan. Egun horretan antolatutako beste ekintzek be ehunka lagun eta euskaltzale batzen eben. Baina urteak pasa ahala ospakizuna apur bat moteltzen joan zen, eta aurten ha berpiztea hartu dabe erronkatzat Lagatzukoek. Zelan berpiztu? Herriko eragile eta herritar guztien parte-hartzea ekartzen dauen Euskal Jaia antolatuz.

“Hamar urtean alkartetik pasatu diran kideakaz ipini gara harremanetan, baita herriko talde gehienakaz be, jaialdia guz-



tion artean eroan daigun aurrera”. Taldeok konbentzitzea ez da behar neketsua izan, Lagatzuk oso lotura estua dauelako talde horeekaz, eta proiektuan guztiak sartu dira buru-belarri. Gurasoen Alkarteak, esate baterako, danborradea prestatzeko ardurea hartu dau, eta entseguetan 150 pertsona inguruk hartu dabe parte. Dantza zein txis-

tu taldeak urtengo dabe kalejiran, harri-zulatzaleak erakusketea egingo dabe, eta Zamudio Racingekoek umeen parkea. “Bakotxak ahal dauan neurrian egingo dau ekarpena; beste batzuek herri-bazkaria prestatzen lagunduko deuskue, azokako postuak jagoten...”. Euskal Jaia prestatzeko batzarretan herriko talde guztiek euki dabe egoteko aukerea, eta danera 28 pertsona ibili dira batzarretan. “Hain erantzun ona izatea oso pozgarria izan da guretzat, eta ziur gagoz jai polita egingo dana. Are gehiago, abiapuntua izan daiteke ha etorkizunean be antolatzen jarraitzeko”. Udalaren laguntza be ezinbestekoa izan da, bate-tik azpiegiturretan, eta bestetik, urterako jasotzen daben diru laguntzak jai hau posible egin daualako.

Folklore hutsik ez

Lagatzu Eguna plazan eta frontoian antolatu ohi da aurreko urteetan, baina herri-gunea jaitik kanpo lotzen zan. Horregaitik aurtengo ekitaldiak herriko beste gune batzuetara zabalduko dira: Leizaola plaza-ra, eskolara, Agirre plazara... Ondorioz, he-



“Hain erantzun ona izatea oso pozgarria izan da guretzat; ziur gagoz jai polita egingo dana”

“Zamudio herri euskalduna dala nabaritu daitela gura dogu, euskerea entzun daitela herriko kaleetatik”

19

zamudioztarren artean. “Kanpainak motorrak berotzen hastea izan dau helburu, jentek Euskal Jaiaren ganean berba egiten hasi daitela. Banderak tabernetan zein balkoietan eskegiko dira eta holan, giroa emongo jako herriari”. Bertoko alkarteak kanta bat konposatu du Euskal jai honetarako. Kanta, CD zein DVDean atera dabe eta egungo teknologiei egokituz mp3 eta mp4an grabatu dabe, sakelako telefonoe-tan entzun eta ikusi ahal izateko.

Ahaleginaren emoitza

Urteurrena handitasunez ospatzen dabilz urtarritetik hona, eta ekitaldiakaz abendura arte jarraituko dabe. Euskal As-tea aspalditik antolatzen daben ekintza da, baina aurtengoa inozkoen bereziena izan da, beharbada. Programazino dotore eta kalitatezkoa ekarri dabe Zamudiora eta

“Tabernetan zein balkoietan Kukuxumuxuk diseinatutako banderak eskegiko dira, herriari giroa emoteko”

ekitaldiak arrakastatsu baino arrakastatsuagoak izan dira: Pirritx eta Porrotx pailazoen saioa, txakolinaren eguna, mendi-ibilaldia edo Erramun Martikorenaren emonaldia, batzuk esatearren. Izan be, ekitaldietara aurretik egindako ekintzetan parte hartu ez daben lagunak bertaratu dira aurtan. Are gehiago, asko bazkide egin dira. “Dana dala, Euskal Aстетik kanpo

egindako ekitaldietara be jente gehiago etorri dala sumatu dogu orokorrean. Ez dakigu urteurrenagaitik izango dan, edo ekitaldiakaz asmatu dogun...” Argi dagoana da Lagatzuk kultura-ekarpen handia egiten deutsola herriari, eta mailari urterik urte eusten deutsola.

Herritarrek taldearekiko dabezan begirunea eta alde zaureretik jarrera ona urteetan zehar egindako beharren emoitza da. Lagatzu alkarte zabala dalako, euskera eta euskal kulturaren alde behar egiten dauana. “Euskera alkarerik egon ezean, herrian ez zan berez gune euskaldunik sortuko, ziur asko. Askok eskertu deuskue beharra eta horrek poztasunez bete gaitu”. Lagatzuren arrakastaren seinale gaur egun dituan 250 bazkideak dira. Kide gehien daukan Zamudioko alkartetariko bat da gaur egun.

“Arnasa hartzeko gunea da Lagatzu”

Zelan planteatu zenduen sorrera hori?

Alkarteak luzaroan irautea gura bagenduan, talde plurala izan behar zala argi euki genduan hasikeratik; sentsibiltate ezberdinetara egon beharko zala zabalik. Bazkidetza kanpainen mezu hori heldu-razo geuntsen zamudioztarrei. Kartel batzuk atera genduzan, eta bertan hainbat esparrutako lagunak argazkiak ipini ziran: ideologia ezberdinetakoak ziran, kirol eta kultura alkarteen buruak, jente ezaguna... Beste esparru batzuetan ondo moldatzea gatxa da, beharbada, baina Lagatzu arnasa hartzeko gunea da. Euskeraren alde egin, eta horren erabilpena bultzatzeko bada, sentsibiltate guztiek Lagatzun lekua badabela argi dogulako. Eta alkar-teak 10 urte bete baditu, horregaitik izan da.

Zelango eragina euki dau Lagatzuk euskararen normalizazioan, herrian?

Gatxa da esatea. Alkar-tea sortu zanean, gehiengo euskalduna zan; eta gaur egun be bada. Eta bai lehen eta bai orain gauza be-rra gertatzen da: kalean gehiengo hori ez dala igartzen. Gure helburua euskarak atzera ez egitea izan da, eta horretarako, euskaraz edozein gauza egin daitekeela erakutsi dogu: irteerak, dastatze ikastaroak, antzerkia, hitzaldiak... Euskerea prestigioatzen lagundu dogu, zentzu horretan. Kultura-eskaintza zabala egin deutsagu herriari, eta guneak zabaldu doguz euskal-dunak bertan batzeko. Euskera alkarerik ez balego, herrian egiten dan beharra erla-xatu, eta, segur asko, erdaldunagoa izango zan.

Sorkuntza aldetik be behar potoloa egin dozue.

Bai, behar batzuk egin doguz: Zamudio ber-

